



Albisterik...

[IRAKURRIENAK](#) | [Bozkatuenak](#) | [Bidalienak](#)

- 1 Bihar izango da Xabier Leteren aldeko hileta elizkizuna, Urnietan
- 2 Reala nagusitu da derbian
- 3 Gaur 20 urte sortu zen 'Egunkaria'
- 4 Cibeles eta Louvre, independentziaren kolorez
- 5 Hasi da mugitzen Kataluniako independentismoa

Txalaparta ez dadila isildu

Gasteiz

VIII. Txalaparta Maratoia egingo da larunbatean, eguerditik gauera arte

JON REJADO

Txalaparta doinuek Gasteizko Alde Zaharreko kaleak beteko dituzte, urtea bukatu aurretik. Zortzigarren urtea da Txalamako taldeak Txalaparta Maratoia egiten duena, eta hasiera bateko helburuari eusten diote oraindik. Instrumentu hori Gasteizen indartzea, alegia. Buruileria plazan hasiko da maratoia, eta Gasteizko gaztetxean bukatuko da jaia, bi kontzerturekin. Euskal Herriko hainbat bazterretatik etorritako txalapartariak gozatu ahal izango da tarte horretan.

Lehen Txalaparta Maratoiarekin zerikusia du aurtengoak. Orain dela zortzi urte, zortzi orduz jarraian jardun zuten txalapartan, Andra Mari Zuriaren plazan. Gasteizko kaletan mugitu izan dira azken aldietan, ordea. Goizeko hamaiketan hasiko dute aurtengo maratoia, Buruileria plazan. Arratsaldeko ordu biak arte, helduentzako zein haurrentzako tailerrak egongo dira bertan, hainbat neurritako txalapartekin. Beste hiruzpalau txalaparta ere izango dira, nahi duten txalapartariak jo ditzaitez. Materiala saltzeko toki bat egongo da Buruileria plazan, makilak eta bestelakoak erosteko, eta baita txalapartak eskatzeko ere.

Arratsaldeko seietan, maratoiaren bigarren zatia hasiko da, Aiztogile kalean. Txapelarrik tabernaren aurrean ipiniko dute lehen txalaparta, eta, giroaren arabera, beste hainbat jarriko dituzte, beste txoko batzuetan. Bertan, joaldi libreak egingo dituzte, eta kanpotik etorritako txalapartarien trebeziarekin gozatu ahal izango da.

Zortzietan hasiko da maratoiaren azken txanpa. Kalea utzi, eta tabernetan sartuko dituzte instrumentuak. Txapelarri tabernan hasiko dira, zortzietan; berrogei minutu geroago, Herrikoian izango dira, eta Txapeldunen bukatuko dute. Baigorri, Zaldibar eta Baztango txalapartariak izango dira bertan. Gasteizko gaztetxean burutuko dute aurtengo Txalaparta Maratoia. Harresian, Zulo eta Tukutun taldeek joko dute, gaueko hamabiak arte.

Zer: VIII. Txalaparta Maratoia. **Non:** Gasteizen. **Noiz:** Abenduaren 30ean.



Laguntzaileak:

